

Euskal AEko Merkataritza-sektoreko salmentak % 2,6 igo dira 2025eko hirugarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean salmentak % 1,4 hazi dira

Eustaten datuen arabera, Merkataritza-sektoreko salmentak % 2,6 egin dute gora urte artean 2025eko hirugarren hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegiko eraginak zuzendua. Merkataritza-sektorearen barnean ondorengoak daude: *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentek % 1,4 egin dute gora 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

Merkataritzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea

Merkataritzaren barruan, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da sektore guztietan. *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* sektorean % 11,5 hazi dira salmentak, *Txikizkako merkataritza* % 3,8 eta *Handizkako merkataritza* % 0,5. Hori guztia prezio konstanteetan eta egutegiko eraginak zuzendua.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaro-eraginak kenduta, *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa* % 4,3 igo dira salmentak, *Txikizkako merkataritza* % 1,1 eta *Handizkako merkataritza* % 0,8.

Euskal AEko merkataritza-indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2025/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
Indize orokorra sektorearen arabera	2,6	1,4	1,5
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	11,5	4,3	3,9
Handizkako merkataritza	0,5	0,8	-0,2
Txikizkako merkataritza	3,8	1,1	3,4
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Araba/Álava	2,4	2,2	1,5
Bizkaia	2,2	1,2	0,6
Gipuzkoa	3,3	1,2	2,9
Enplegu-indizea			
Euskal AE	1,5	0,8	0,7

(p) Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2025eko Azaroaren 13a

Iturria: Eustat. Merkataritza-Indizea

Salmenten urte arteko portaera positiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan % 3,3 hazi dira salmentak, Araban, % 2,4 eta Bizkaian % 2,2. Aurreko hiruhilekoarekiko, Araban % 2,2ko igoera egon da eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 1,2koa.

Euskal AEko Merkataritza-sektoreko landunen indizea % 1,5 hazi da 2024ko hirugarren hiruhilekoaren aldean. 2025eko bigarren hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,8 igo da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiko eraginak zuzendutako serieetan oinarritzen dira eta hiruhileko arteko aldakuntzak urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhilekoaren indizea kalkulatu da laginaren % 96,68 kontuan izanik.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62